

Nafarroan, Lizarra hiriko Udaletxean egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea, 1990eko irailaren 28an. Arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak; hala nola, J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

X. Diharce eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute.

Batzar-agiria aldaketarik gabe onartu da A. Irigoyen jaunak idatziz aurkeztutako gehigarriak azaldu eta eztabaidatu ondoren.

Euskaltzain berria

Hiriart-Urruty euskaltzainaren hutsartea betetzeko bozketa da eguneko gaien zerrendan aurkeztutako lehen puntua. Ekintza honen prozedurari buruzko arauak irakurri ditu hasieran euskaltzainburuak. Kopuruari dagokionez, Lizarrako udal aretoan bildutako 18 euskaltzainez bestalde, X. Diharce jaunak euskaltzainburuari bidali dio idazki baten bidez bere ahala, eta A. Zavalak idazkariari. Hogei dira, beraz, hautesleak, eta B. Oyharçabal hautagai bakarra. Txartelak banatu dira gero, eta honako hau izan da bozketaren emaitza: 18 botu Oyharçabalen alde, eta bi txartel zuri.

Lehen itzulian lortu du hautagaiak gehiengo nagusia eta bera izango da, beraz, euskaltzain berria. Horrela jakineraziko zaio, bere onarpena epe barruan eman dezan eskatuz.

Zerga inprimakiak

Igaz hasitako zerga-paperen idazkera bateratuari jarraituz, Balio Erantsiari dagokion Zerga inprimakien bilduma jaso da, gainbegiratua eta azken oharrak egiteko eskariarekin. Aginteez dituzten itzultzaile ofizialek elkarlanean egindako

itzulpena da, eta noizbait horrelakoetan gertatua kontutan hartuz, euren ikuspegia azaltzeko pare bat ordezkari Euskaltzaindiko arduradunekin biltzea eskatzen dute. Lana luzapenik gabe egitea ere aipatzen da. Epe luzeagoarekin zerrendak bidaltzea eskatuko zaie agintariei.

Inprimakiak begiratu eta oharrak egingo dituen batzordeño bat izendatu da gero, batzordekide hauekin: J.A. Arana Martija, A. Muniategi, B. Oyharçabal, A. Sagarna, I. Sarasola, P. Uribarren eta A. Urrutia. Prozedurari buruz, langaia euskaltzainei banatu eta urriaren 15erako bidali behar dira oharrak Bilboko bulegoetara. Batzordeñoak bere eginkizuna bete ondoren, urriaren 24ean emango du bere iritzia. Gutunean aipatutako itzultzaileen ordezkariak ere entzunak izan bitez.

Bonaparteren mendeurrena

Datorren urterako egutegian sartua da Bonaparte printzearen mendeurrena eta ospakizun antolaketari buruz zehaztasun zenbait onartu da. 1991ko larrazkenean, urriaren 21etik 26ra bitarteko astea aukeratu da horretarako, Bilboko egoitza berrian izango direlarik Jardunak.

Zuzendaritzak, bere aldetik, proposamen bat aurkeztu dio batzarreari: Batzorde orokor bakarra bi ataletan banatua izan daitekeela, ardatz nagusia, alegia, asmoa aurrera eramateko. Euskaltzainburua izan daiteke buru, honakoi kargudun hauek osotuko dituztelarik bi atalak:

Azpibatzerde akademikoa, Dialektologi batzordeburuak, Euskalkien Ikerlan saileko arduradunak, Euskalkien Ikerlan saileko idazkariak, Hizkuntz Atlasaren azpibatzerde idazkariak eta IKER sailburuak. Haez gain, zenbait aholkulariren laguntzarekin kondatu beharko da, gai bakoitzaren arabera.

Azpibatzerde antolatzailea kargu dun hauen ardurapean sor daiteke: Euskaltzain buruordea, idazkaria, diruzaina, JAGON sailburua, idazkariordea, Ekonomia eragilea eta Argitarapenen arduraduna. Beharren neurrian, zerbitzu tekniko batzurrekin konda dezake, noski, batzordeak.

Atal bi hauetatik sortuko da gero egitasmoa aurrera eramango duen batzorde iraunkorra.

Proposamena bere osotasunean onartu da, zerrenda akademikoa aholkulariekin gehitu behar dela azpimarratu duelarik P. Salaburuk.

Bizkaiko toponimiaz

Bizkaiko Foru Aldundiak errotula eta/edo argitaragarrien toki izenak berrikusi eta bateratzeko asmoz, hitzarmena sinatzea proposatzen dio Euskaltzaindiari. E. Knörr Onomastika batzordeburuak egin du aurkezpena.

A. Irigoyenek dio, Deustuan dagoen bilketa zerrenda haundia dela, mapak zuzenduak direla jadanik eta laster argitaratzekoak direnez, gai hau beste aldi baterako uztea eskatzen duela.

E. Knörrek erantzun dio, aspaldiko arazoa izanik eta presa gorria duenez, aurrera egin edo bertan behera utzi beharko dela. Bozketa egitea eskatu du ondoren.

A. Irigoyenen ustez, bada zerbait arazo honetan behar den moduan neurtu ez dena: erabiltzen ahal den materiale guztia, alegia, ez dela baliatzen.

Eztabaida luzearen ondoren botuetara jo behar izan da, *baiak* proposamena onartzen dela erakutsiz, eta *ezak* gerorako uzten dela adierazten duelarik. Ondorea hau izan da: Bai, 11; Ez, 3; Zuri, 4. Hitzarmenaren proposamena onarturik geratu da beraz.

Eskuartekoak

Nafarroako Gobernuak toponimia xeheari buruz egin nahi duen bilketa orokorraren berri emen du J.M. Satrustegik. TRACASA katastro zerbitzukoek bidalitako gutuna irakurri du, Euskaltzaindia legezko azken begiratu emango duen erakunde ofiziala denez, lanen ordainketa bere bidez egiteko laguntza eskatzen.

III. Toponimia Jardunaldien amaierako batzarre irekia hasi beharra zelako astirik ezean, beste egun batean ikusteko utzi da gaia.

Lizarrako alkatesak bere ezin etorria adierazten duen gutunaren berri eman da batzartuei.

Eta besterik gabe amaitu da euskaltzain osoen batzarrea.

BATZAR-IREKIA

Lizarra hiriko Udaletxean, 1990.eko irailaren 28an, arratsaldeko 6etan bildu da Euskaltzaindia, Lizarrako Foruaren IX. mendeurrena ospakizunen barnean, bere batzar irekia egiteko asmoz. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina; E. Knörr, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak; R. Badiola, A. Iñigo, J.M. Jimeno Jurio, J.L. Lizundia, L.M. Mujika eta J.J. Zearreta, urgazleak.

Mahaipuruan eseri dira Zuzendaritzakoekin batera, Aladino Colin Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Saileko kontseilaria, Estebe Petrizan Hizkuntz Politikarako zuzendari nagusia, Juan Andres Platero, Pello Zia, Xabier Astiz eta Julian Agirre zinegotziak.

Bestalde, zenbait gonbidatu berezi ere batzar aretoan aurkitzen dira, hala nola: Juan Jose Ekisoain Foru Gobernuko Hezkuntza Saileko euskara zerbitzu burua eta M.^a Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia; Nafarroako ikastoleen elkarteak; Lizarrako Ikastola; AEK euskaltegiko eta beste kultur elkarteetako ordezkariak; III. Onomastika Jardunaldietako partaide andana bat eta Lizarrako zenbait hiritar.

Juan Andres Platero zinegotziak, Udalaren izenean, bere ongi etorria ematen du.

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak sarrera hitz batzu esaten ditu, Euskaltzaindia zergatik eta nola etorri den hiri honetara azalduz, bereziki Onomastika Jardunaldiekin erregalu zientifiko bat egiten diola Lizarrako herriari azpimarratuz.

Ondoren, J.M. Satrustegi euskaltzainak "Euskararen eboluzioa Lizarrako merinaldean/Evolución de la lengua vasca en la merindad de Estella" izeneko hitzaldia ematen du. Lizarrerriaren deskribapen geografikoa eginez hasi zaigu hizlaria. Jarraian historian zehar elizbarrutiak izan dituen gora-beherak gogoetan jarri ditu. Ondoren Erdi Aroan hasirik -VIII. mendean- ikerlari zenbaitzuren eritziak, hots, J.M. Lakarra, J.M. Jimeno Juriorenak azaldu dizkie Lizarrako Udaletxean bildurik zeudenei. Gero Iratxe eta Irantzu monastegietako agiriak ezagutarazi ditu. Aurreraxeago berbizkundeko zenbait idaztiren azalpena eginez jarraitu du, alegia, Eraulen aurkitua eta baita Arandigoien, Barbarin, Abartzuza, Lizarra eta Ameskoan. Lekuko J.M. Lander, I. Ursua, B.G. de Albizu aipatzen ditu.

Segidan XVIII. mendeko zenbait lekukoren berri eskainirik jarraitu du, alegia, Arbeitza, Deierri, Goñibar, Gesalatz.

Ondoan XIX. mendekoak: Pablo de Estella, A. Campion. Gero XX. mendean euskararen inguruan emandako urratsak goraiatu ditu, bereziki Lizarrako ikastola.

Txostenean zehar hainbat eta hainbat aipamen burutu ditu eta baita sei mapa erantsi ere.

Hitzaldiaren ondoren, E. Knörr, Onomastika batzordeburuak, ospakizuneko batzar honekin baliatuz, J.M. Jimeno Jurio batzordekidearen azken liburua, hots, *Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Iza* aurkezten du. Egilearen lan bikaina azpimarratzen du Iruñerriko toponimiaren laugarrena delarik.

Segidan, E. Knörr euskaltzainak berak III. Jardunaldien ondorioak irakurtzen ditu, puntu nagusiak hauek izanik: 1. Hizkuntzalaritza, Geografia eta antzeko sailetan ari direnek Onomastika lanak ezagutu beharra; 2. Euskaltzaindia gai honetako tesi, tesina eta antzeko lanen informazioaren bilketez arduratzea; 3. Bibliografia sistematizatzea, horretarako Eusko Bibliographia laguntzeko prest dagoelarik; 4. Bilketa sistematikoari lehentasuna ematea; 5. Hurrengo Jardunaldietako gai nagusia euskal amerikar onomastika izatea.

Euskaltzainburuak Jardunaldietan izandako zenbait txostengile eta entzunleri sinbolikoki partaidetza-agiriak banatzen dizkie.

Pello Zia euskararen arduradun zinegotziak Lizarra hiriak, bere Foruaren 900. urteurrena dela eta, atera duen zilarrezko domina ematen dio J. Haritschelharri Euskaltzaindiarentzat. Euskaltzainburuak, bere aldetik, Euskaltzaindiaren domina ematen dio Udalarentzat Zia jaunari.

Azkenik, Aladino Colin Nafar Gobernuako Lehendakaritza Saileko kontseilari jaunak euskararekiko eta bereziki Euskaltzaindiarekiko Foru Gobernuaren atxiki-mendua agertuz, III. Onomastika Jardunaldi eta batzarreari amaiera ematen dio.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Jose M. Satrustegi